

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2011ko urriaren 20a. VIII. urtea. 2.293. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

**Pedro Arrillaga** Aranzadi Zientzia Elkarteko Mikologia zuzendaria

## «Euskal Herrian jaso ditugun barrengorriez hitz egingo dut»

Tolosako Kasinoren Mikologia Jardunaldien barruan, hitzaldia eskainiko du gaur, 20:00etan, Idiakez jauregian; Euskal Herrian 50 barrengorri edo 'agaricus' mota bildu dituztela dio ◦2



Atzo itxura hau zuen Ibiurko urtegiak; euria egin arren herenegun baino ur gutxiago zuen. E.MAIZ

## Kontsortzioa kezkatuta dago Ibiurren ur eskasia dagoelako

Tolosaldeko herriak hornitzen dituen urtegia bere edukieraren %22,65an dago; arduradunen arabera, euri gehiago egin ezean, ura hiru hilabetez emateko aukera bakarrik izango luke ◦6

## Gaur eztabaidatuko du epaia Calen heriotzaren epaimahaiak

Fiskaltzak 14 urteko espetxe zigorra berretsi du; auzitegi medikuek deklaratu zuten atzo ◦4

**Georgina Hassan**  
Kantaria

## «Garrantzia berezia dute niretzat nire sustraiek»

Leitzar jatorridun abeslari argentinarrak kontzertua emango du, gaur, zineman

Elkarrizketa ◦7



## Balerdiren lanak ikusgai, Alegiako Jubilatuen tabernan

Hilabete bukaerara arte egongo dira margolanak; ikusteaz gain erosteko aukera ere badago ◦5



**FUNERARIA VASCONGADA EHZORZKETAK**  
Larrea Poligonoa 34 - 1  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)



**Gertu...**  
VILLABONAKO  
HILETA ZERBITZUAK  
BEILATOKI-BULABEA

**24 H..**  
943 694 873



HITZA

## Pedro Arrillaga ◉ Aranzadi Zientzia Elkarteko Mikologia zuzendaria

Perretxikoei buruzko hainbat liburu idatzitakoa da Pedro Arrillaga. Aranzadi Zientzia Elkarteko Mikologia saileko zuzendaria ere bada, eta gaur iluntzean, hitzaldia eskainiko du barrengorri espezieei buruz, besteak beste.

# «50 barrengorri mota bildu ditugu Euskal Herrian»

### Itzea Urkizu

Aranzadi Zientzia Elkarteko Mikologia saileko zuzendaria da Pedro Arrillaga.

Kasino elkarteak antolatutako Mikologia jardunaldien barruan, *Agaricus* espeziearen, edo barrengorrien inguruko hitzaldia eskainiko du gaur, 20:00etatik aurrera, Idiake jauregian.

### Gaureskainiko duzun hitzaldian zein ildo jarraituko duzu?

Funtsezko ideia *Agaricus* generoari buruz aritzea da; hizkera arruntan barrengorri deitzen diegunak dira hauek. Gure inguruan ordezkariak zabala du genero honek. Duela urte batzuk, dozena erdi bat *agaricus* desberdin zeudela uste genuen, baina 50 barrengorri mota desberdin biltzea lortu dugu. Espezie hauetariko batzuk sukaldaritzarako biltzen dira, baina gehienak ezezagunak dira helburu gastronomikoekin, mendian perretxikoak jasotzeko

ohitura duen jendearentzat. Euskal Herrian jaso ditugun *agaricus* sei buruz hitz egingo dut, eta beren inguruari buruz ere bai. Era berean, espezie hauek identifikatzeko moduak ere azalduko ditut, espezializatutako generoa den arren. Jarraian, espeziearen ezaugarri makroskopikoak nahiz hauek jaterako orduan kontuan izan beharreko ezaugarriak ere, hizpide izango dira.

### Barrengorri edo *agaricus* hauen artean ba al da pozoidunik?

*Agaricus* taldearen barruan bada barrengorri pozoitsuen talde bat. Toxikotasuna ez da beste espezie batzuen bezain altua, baina sa-beleko min galantak eta gorakoa sor dezakete. Talde hori karaktere makroskopiko sinpleen bidez identifikatu daiteke; espeziea zehaztea ez da hain erraza, baina usaimena eta ikusmena finduak izanez gero, *agaricus* toxikoak ezagutzea ez da lan zaila.

### Mikologia eta bere inguruko kultura

### eskoletan irakasten zen duela urte batzuk. Gaur egun tradizio hori galdu egin da edo informazio gehiago dugu?

Orain dela urte batzuk, familiako tradizioagatik irakasten zitzairen haurrei, perretxikoak identifikatzen. Familia osoirik joaten zen mendira, eta jateko perretxikoak biltzen zituzten, guztiek batera. Espezie jangarrien ezagutza, beraz, gurasoetatik seme-alabetara pasatzen zen; perretxiko jangarrien ezagutzaren jatorria hau dela esan daiteke. Espezie toxikoak, ordea, ez ziren hain ondo ezagutzen, eta ondorioz, gaur egun ere perretxiko toxikoak kontsumitzen dira zenbaitetan, hutsegiteak direla eta. Hala eta guztiz ere, ezagutzari dagokionez, gaur egun askoz ere informazio gehiago dugu orain dela urte batzuk baino; askoz ere maila altuagoan ari gara lanean gaur egun. Orain jendeak informazio gehiago du, eta baita ezagutza hobea ere. Era berean, baliabide eta aukera handiagoak ditugu espezieak identifikatzeko zentroetara joan, eta bertan laguntza eskatzeko. Neska-mutil gazteei ere, zenbait ikastetxetan behinik behin, irakasle batzuek mikologiaren oinarriak irakasten dizkiete, eta ondoenganako interesa pizten saiatzen dira. Beraz, duela urte batzuk istripuren bat izateko au-

kera gehiago zeuden. Egia da, kontsumitu ere, gutxiago kontsumitzen zela lehen.

### Informazioa izan arren, perretxikoekin jendeak behar besteko kontua izaten al du?

Jende ausarta beti izanda, bada eta izango da gero ere. Egia esan, ez dakit batzuetan perretxiko biltzaileek nola jaten dituzten zenbait espezie; zer diren argi jakin gabe kontsumitzen dituzte, eta batzuetan intoxikatu egiten dira. Bitxiarena, gainera, zera da, intoxikatzen direnetako askok, badaezpada ere, jan duten perretxikoaren laginen bat eramaten dutela, konponbidea errazago aurkitzeko. Nire ustez, espezie toxiko bat jateak ez du merezi. Eta noski, ale bat gordetzen duenak zalantzaren bat badu.

### Perretxikoak kiloka biltzen dira udazkenean. Gehiegizkoa iruditzen al zaizu?

Mugak batzuk badira bilketa arautzeko. Hala ere, eremuaren arabera da; Gipuzkoan, adibidez, egun bakoitzean 5 kilo bildu ditzake pertsona bakoitzak. Nire ustez, hau gehiegizkoa ere izan daiteke, hiru lagun batera joaten badira, perretxiko asko biltzen baitituzte. Onddoek halako arrakasta lortzeak, basoko onddoen komertzio indartsua sortzea ekarri du, eta hau ere arauak jarraituz gauzatu behar da.



## Partaidetza eta gardentasunaren izenean

Tolosako auzoen eta udalaren arteko batzordeetako bilerak abian dira dagoeneko. Auzoek ezingo lukete gelditu ulertu, ez ulertu ezta merezi ere, dagoena dagoela udalarekin. Gure asmoa batzordeetan parte hartzen jarraitzea zen. Auzotar askorekin hitz egin dugu eta beretan pentsatzen dugu hasitako bidearen jarraipena egiteko gure laguntza, ezinbestekoa ez, baina lagungarria izan zitekeela dudarik gabe.

Horrela adierazi genion auzoetako zinegotzi arduradunari gure ikuspuntua: auzoetako dagokionez, laguntzeko, ekimenetan parte hartzeko, dauden arazoetarako elkarrekin irtenbideak bilatzeko, auzotarrek batera, orain arte bezela, elkarlanean estu aritzeko prest gaudela. Batzuetan erabat ados eta besteetan desadostasunak gairidituz eta akordioetara iritsiz. Gure haridurarako bere erantzuna zera izan zen: «Erabaki dugu gobernuan gaudenok bakarrik parte hartuko dugula bileretan». Beraz ukatu egin digute bileretan parte hartzea, partaidetza eta gardentasunaren izenean. Orain arte Tolosako Udalak ez dio inori aterik itxi. Hara non, partaidetza hitz egiten dabilzatenak, oposizioko talde handienari ateak itxi dabilta. Ez da hau izan orain arte udalak izan duen jarrera, inola ere.

Tolosako Udalak, historikoki zor handia izan du bere landa auzoekin, eta zor hori oraindik ere ez da kendu. Aurreko legegaldietan zor hori murrizten saiatu ginen: errealtatearen diagnostika egin eta helburu zehatzak markatzen. Aurrerapauso handiak egin dira auzoak eta udala elkarlanean arituz. Aurreko udalak apustu garrantzitsua egin zuen gure auzoen alde, eta auzotarrek horri erantzuten, gogor lan egin dute auzoko biziberritze lanetan.

Lerro hauen bidez eskertu nahi dut bizilagunei eginko lan gutzia; bizitza pertsonalari kendu dioten denbora gutzia, musutruk eta ilusioz, auzotarren alde lan egiteko. Ez da makala izan egindakoa eta lortutakoa. Arlo pertsonalean egindako lanaz gain, egin ditugun harreman pertsonalak guretzako geratzen dira. Biziki gustora ibili gara lanean eta tarteka lagun taldea osatzea lortu dugula ere uste dut. Bileretan parte hartzen ez utzi arren, bileretako aktak jasotzea ezin digute ukatu, beraz gaiak jarraituko ditugu. Oso kobilkuretan eta aukera dugun guztietan ere indarra egiten jarraituko dugu Tolosako auzoetako merezi duten arreta izateko. Beraz edozertarako hemen gauzazue, udalarekin, laguntzeko eta bultzatzeko. Auzoekin zerikusia duten ekimen guztietan parte hartuko dugu eta gure babeseraren jarraituko duzue. Mila-mila esker denoi eta hurrengora arte.

■ **Olaz Peon.** EAJko zinegotzia.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosako Alde Zaharrean, 55 metro karratuko atiko rustikoa dago salgai. Bi logela, sukualdea, egongela eta komuna

ditu, eta baita terraza ikusgarri bat ere. Etxea berritua dago. Interesa dutenek, 943 57 13 87 telefono zenbakira hots egin beharko dute.

Jende ugari elkartu zen Larramendi auzoaren proiektuei buruz hitz egiteko Tolosako Udalak deitutako batzarrean. Lantzen ari direna oraindik ez dago guztiz zehaztuta eta azaroan aurkeztu nahi dute. Bi proiektuen artean auzotarrek erabakiko dute.

# Udalaren proposamenaren zain

Imanol Garcia

**I**kusmin handia sortu zuen Tolosako Udalak herenegun iluntzean antolatutako batzarra. Udaletxeko batzar aretoa txiki gelditu zen. Larramendi auzoko urbanizazio berriaren egungo proiektua ez du gustuko udal gobernuak eta beste bat eztabaidatzen ari da enpresa eraikitzaileekin. Proiektu alternatiboan ez da Larramendi errepidearen lurperatzea aurreikus- ten, eta horren inguruan azkenaldian sortu diren zurrumurruei erantzuna emateko deitu zuen udalak, bilera. Izan ere, oraindik ez dago guztiz zehaztuta proiektu berri hori. Udalak lehenbailehen itxeko asmoa duela esan zuen.

Udala ordezkatzen Ibai Iriarte alkatea, Pello Etxabe zinegotzia eta Hektor Espin aholkularia izan ziren. Lehenbizi, beste proiektu bat lantzearen arrazoiak eman zituzten. Alde bate- tik, Larramendi errepidearen lurperatzearekin ez daudela ados esan zuten, eta orain arte eginda dauden bi txosten teknikoak obra horren aurkakoak direla azaldu zuten. Bestetik, beraiek proposa- zen duten proiektuak eremuari egonkortasun juridikoa emango diola esan zuten, besteak beste,



Jendez gainetza egon zen udaletxeko batzar aretoa herenegun egindako bileran. I. GARCIA

ekipamendu gehiago aurreikus- ten direlako. Beste arrazoietako bat jendearen parte hartzea bul- tzatu nahi dutela da. «Egungo proiektuaren eta udalak aurkez- tuko duenaren artean auzotarrek erabakiko dute», azaldu zuen al- katea.

Azaroan aurkeztu nahi dute proiektu alternatiboa eta galde- keta abenduan egitea espero

dute. Prozesu hori aurrera era- mateko auzotarren batzorde bat osatzea nahi dute udal ordezka- riek, eta bileran bertan horretara- koganbetea luzatu zuten, baina ez zen gauzatu.

## Parte hartze zabala

Bilerara joan zirenei hitza emate- rakoan, bertan zeuden gehienak errepidea lurperatzearen aldeko

ak zirela ikusi ahal izan zen. Hitz egin zutenetik askok egungo proiektuaren alde egin zuten, proiektu hori aintzat hartuta ero- si zutelako etxebizitza. Errepidea- ren bi aldeko eremuak lotzeko modu segurua zela argudiatu zuten. Beste zenbaitzuk, hasiera batean lurperatzearen alde egon arren, erabakia hartzeko udala lantzen ari den proiektuaren be-

rri jakin nahi zutela azaldu zuten. Larramendi auzoko eremu zahar- reko zenbait bizilagun keXu agertu ziren, egungo proiektua beraiei ezer galdetu gabe egin ze- lako. Belate auzoko bizilagun ba- tek ere hitza hartu eta bere kezka agertu zuen: «Larramendi auzo- tik ibilgailuak igarotzea zailtzen bada, ibaiaren gainetik egingo den zubiaren ondorioz, ibilgai- luak Belatetik sartuko dira Tolo- sara».

Herritarren parte hartzeetatik bi izan ziren txalotuenak. Batek pertsonen ikuspuntutik hitz egi- ten zuela esan zuen, eta lurpera- tzearen gainean geldituko litzate- keen pasabideak auzoaren bi al- deak elkartuko zituela adierazi zuen. Besteak, bilerari eta aurre- ra begira egingo den prozesuari eman zion garrantzia. Herrita- rrek horrelako proiektu batean iritzia ematea eta erabakitzea ez zuela ezagutu esan zuen, eta au- kera hori izatea nabarmendu zuen.

Gaiaren inguruan lehen batza- rra egin ondoren, orain udalaren proposamenaren zain geratu dira auzotarrak. Orduan, bi proiektuak, egungoa eta udala lantzen ari dena, mahai gainean izango dira eta eztabaida gehiago zehaz- tuko da.

## Orfeoia: «Gure oroimenean dago Bruselako kontzertua»

Emanaldia egin zuten abeslariak Europako Batasunean EAEko ordezkaritzaren 25. urteurreneko ekitaldian

I. Garcia

Tolosako Orfeoia Bruselan izan berri da, Europako Batasunean EAEko ordezkaritzaren 25. urteurrenean kontzertua eskainiz. Wolubilis kultur etxean egin zuten emanaldia, eta Orfeoitik azaldu dutenez, «parte hartzaile guztien oroimenean geratuko da». Besteak beste, euskal abestiak kantatu zituzten eta horrek «Euskadi gertuago sentiarazi zien» entzuten zeuden euskaldunei.

Patxi Lopez lehendakaria izan zen ekitaldiaren buru. Kontzer- tuan laurhun bat gonbidatu egon ziren eta, haien artean, Marta Marin Eusko Jaurlaritzaren or-

dezkarria Bruselan, Bernabe Unda Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua, Yolanda Barcina Nafarroako Gobernuko presidentea, Joaquin Almunia Euro- pako komisarioa, euskal europar- lamentariak eta Belgikako hiriburuan bizi diren euskaldunak.


Kontzertua Ignacio Ruiz de Alegriak zuzendu zuen eta ins- trumentu jotzaile hauek jardun zuten: Javier Perez Azpeitia (pia- noa) eta Ana Belen Garcia (har- moniuma). Bestetik, abeslari ba- karlari hauek kantatu zuten: Amaya Arberas (sopranoa), Juan Noval (tenorea), Beatriz de Gal- ve (kontraltoa) eta Pablo Garcia (baxua). Rossiniaren *Petite messe solennelle* interpretatu zuten. Ondoren, hiru musikari tolosarren parte hartzea izan zen: Inigo Agi- rre (gitarra), Juanjo Falcon (baxu elektrikoa) eta Mitxel Longaron (bateria). Euskal kantu ezagun batzuk interpretatu zituzten, En-

rique Ugartek orkestratuta: *Ba- gare, Lau teilatu, Oi ama Eskual Herria eta Furra-furra*. Emanal- dia bukatzeko, Tolosako herria- ren fundazioaren 750. urteurrene- ko ereserkia, Enrique Ugartek konposatua Karlos Linazasoro- ren hitzekin, entzun zen. «Duda- rik gabe, erreztaldiaren bigarren atala gogo handi eta beroz bizi izan zen, euskal kulturarekin har- rremanetan jartzea ekarri bai- tzuen», azaldu dute Orfeoikoek.

Ekitaldia amaitzeko, Lopez le- hendakariak harrera jaia eskani- zien Wolubilisen Bruselan bizi di- ren euskaldunei eta ordezkaritza- politikoei. «Oso elkartze hunkiga- rria izan zen, giro adeitsu eta her- rrikoian eta protokoloz gabe», esan dute Orfeoikoek. «Une zirra- ragarriak bizi izan ziren, inguru kuttunean, eta Orfeoikoekin ba- rera hainbat eta hainbat abesti kantatu zituzten modu jator eta espontaneoan, bildutako jendea- ren eskariz».



Tolosako Orfeoia Bruselan eman zuten emanaldian. HITZA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## hitza ren udazkeneko arropa eskaintza

Haurrentzako

Jertsea: **25 €**



**KOLOREAK:**  
Morea • Berdea

**NEURRIAK:**  
3-4/5-6/7-9/9-11



Helduentzako

Jertsea: **29,5 €**



**Kolorea:** beltza

**Gizon eta emakumeen modelook**

**Neurriak:**

- Gizonak: S-M-L-XL-XXL
- Emakumeak: S-M-L-XL

## Noiz eta nola egin eskaria ?

Urriak 28 bitarte duzu aukera eskaera egiteko

- TELEFONOZ: 902-82 02 01
- POSTAZ: harpidetza@hitza.info

**hitza** info

# Larunbatean egingo dute XI. Rolleski Igoera, Tolosako Belate auzotik irtenda

16:00etan patinatzaile estilokoak aterako dira, eta 16:05ean klasiko erakoen txanda izango da

**Rebeka Calvo** Hernalde

Tolosako Alpino Uzturre elkarteak 11. urtez antolatu du Hernaldeko Rolleski Igoera. Larunbatean izango da, hilak 22, eta 16:00etan aterako dira lehen parte hartzaileak.

Lehen txanda horretan patinatzaile estiloan parte hartuko dutenak irtengo dira, eta Tolosako Belate auzotik aterako dira. Bost minutu beranduago aldiz, Hernaldeko Bentatik aterako dira lasterka, estilo klasikoan ariko direnak.

14 urte azpikoak igoera erdialdean sartuko dira lasterketara, eta Anoetako gurutzetik Hernaldeko plazarainoko bidea egin beharko dute.

Hernaldeko Rolleski Igoera 7 probaz osatuta dagoen Rolleski

Liga barruan kokatu behar da, puntuak lortu ahal dira eta, eta ondorioz, Gipuzkoa osokoak ez ezik, Nafarroa, Aragoi, Cantabria eta Madrilko partaideak espero dituzte Alpino Uzturre elkarteko kideek.



laz ere parte hartzaile ugari hartu zuten parte lasterketan. I. TERRADILLOS

## Fiskaltzak 14 urteko espetxe zigorra berretsi du Calen hiltzailearentzat

Auzitegiko lehendakariak gaur emango die epaia epaimahaieko kideei, aztertu dezaten

**R. C.** Tolosa

Atzo goizean auzitegi medikuen deklarazioak entzun ahal izan ziren Elena Calen hilketaren inguruko epaiketan. Elena Cal 2010eko urtarrilaren 17an hil zuten Pablo Jorge Simaok laban-kadaz. Auzitegiko medikuek hilketa burutzeko erabilitako armak 7 zentrimetro baino gehiagoko ahoa zuela esan zuten, nahiz eta ez duten arma aurkitu. Era berean, Cal segituan artatuta ere, ezingo zutela heriotza ekidin esan zuten, odol asko galdu baitzuten. Hauek entzunda fiskaltzak behin betikotzak jo zituen bere ondorioak, eta 14 urteko espetxe zigor eskaera berretsi. Abokatu denfentsariak aldiz, urte beteko itxialdia eskatu zuten zuhurtziagabekeriaren giza hilketarengatik.

Epaiketa astelehenean hasi zen eta lehen egunean, bikotekide ohiak emakumea laban-kadaz hil zuela aitortu zuten, baina istri-

puz. Asteartean aldiz, hilketaren lekukoek deklaratu zuten. Anbulantziako medikuak laban-kada «sakona» zuela esan zuten. Cal bizi-rik iritsi zen Donostia Ospitalera, baina erietxean bertan hil zen. Medikuek gain, lekuko batzuek ere deklaratu zuten herenegun, eta hauek Simaoren argudioak ezbaian jarri zituzten. Heriotzaren unean Calen bikotekidea zenak esaterako, Simao ez zegoela edanda esan zuten, nahiz eta hiltzaileak hori esan. Lekukoek ordea, hiltzaileak, hildakoak eta haren bikotekideak alkoholarekin arazoak zituztela esan zuten.

Calen bikotekideak hilketa arreretik Simao eta emakumea eztabaidan aritu zirela esan zuten. Laban-kada eman eta gero Simaok alde egin zuela ere esan zuten, eta bikotekideak deitu zuten larrialdietara. Simao atxilotu zuten ertzainek ere deklaratu zuten herenegun eta hilketa ukatu bazuen ere, atxilotzeari kontra ez ziola egin azaldu zuten. Hiru pertsonak bizi zireneko egoera ere nabarmendu zuten ertzainek; txabolabatean, argirik eta urik gabe, eta higie gabezia handiarekin.

Epaiketak gaur jarraituko du. Auzitegiko lehendakariak epaia emango die epaimahaieko kideei, hauek aztertu dezaten.

## Kultur taldearen bilera egingo dute gaur, 20:00etan kultur etxean

Partaidetza sustatzeko hainbat talde osatuko dituzte Asteasun, eta lehena kulturaren arlokoa izan da

**R. C.** Asteasu

Asteasuko Udalak jakinarazi duenez, gaur 20:00etatik aurrera kultur taldearen bilera egingo dute kultur etxean.

Udalaren asmoa herritarren artean partaidetza bultzatzea da, eta horregatik osatuko dituzte taldeak, alorka.

Talde irekiak izango dira, eta lehena osatu dute jada: kultura taldea.

**Kultur mugimendua berpiztu**  
Kultur taldearen helburua herriko kultur mugimendua berpiztea da eta hainbat egiteko izango dute bertan parte hartzen duten herritarrek: proposamenak egin, herriko jaiak antolatu, ekitaldiak lotu...

Gaurko lehen bilera honetan, hortaz, herritarren arteko harremana eta hartu-eman sustatu nahi dutela azaldu dute udaleko arduradunek.



Era eta estilo guztietako koadroak marrazten ditu; erakusketan dauden guztiak olio pinturaz margotuta daude. E.MAIZ

## Txikitatik datorkion afizioari jarraituz

Garbiñe Balerdiren margolanak Alegiako Jubilatuen tabernan daude; hilabetea bukatu bitartean egongo dira

**Eneritz Maiz** Alegia

Garbiñe Balerdi tolosarraren margolanak Alegiako Jubilatuen tabernan daude ikusgai. Hilabete hasieran jarri zituen bertan, eta hilabete osoa bukatu bitartean ikusteko aukera izango da.

Txiki-txikitatik datorkio eskulanetarako afizioa tolosarrari. Gurasoak biek dutela esku ona, eta beraiengandik jaso duela gogoratzen du. Egunean, gutxi gorabehera ordu eta erdi eskaintzen die eskulanei. Duela bost bat urte,

Inazio Guardaminoren akademiara joan zen ikastera, eta orain Tolosako kultur etxera joaten da. Estilo bat baino gehiago erabiltzen ditu koadroak margotzeko, baina Alegian dauden margolan guztiak olio pinturaz margotutak dira.

### Koadroak erosteko aukera

Era guztietako koadroak margotzen ditu, eta ez du estilo jakin bat jarraitzen. Ikusgai dauden koadroetan, paisaiak, loreak, lekuak, marrazkiak,... ikus daitezke. Berak azaldu duenez, gehienak argazkiak dira, eta argazkietako irudiak koadro bilakatzen ditu. Hala ere, garbi utzi nahi izan du marrazten askoz hobeto moldatzen dela margotzen baino.

Urteak dira Alegiako Jubilatuen tabernak ezagunak ez diren

margolariei beraien lanak jendaurrean jartzeko aukera eskaintzen diela. Garbiñe Balerdiren ustez, «aukera polita da jendea ezagutzera emateko», dio. Lehen aldiz, Tolosako Lanbroa tabernan jarri zituela bere lanak gogoratzen du, eta orain bigarren aldiz jarri dituela erakusgai Alegian. Bera bezalako jendeak egiten dituen lanak ezagutzera emateko ondo dago tabernek eskaintzen duten erakusleihoa.

Erakusketan dagoen koadroren bat gustatu, eta erosi nahi izanez gero, aukera hori ere ematen du Balerdik. Guztiak ez daudela salgai azpimarratu du, baina berarekin harremanetan jarri daiteke gustatutako margolana eskuratzeko. Jubilatuen tabernan dago berarekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia.



*Gure lurretako produkturik onenak*

www.euskalherriko  
**PLAZA.com**





Atzo Ibiurko urtegiak zuen itxura da ikusten dena. Atzo euria egin bazuen ere, udaz geroztik ur maila asko jaitsi da. E. MAIZ

## Ibiurrek hiru hilabetez hornitzeko ura baino ez luke, euri gehiago egin ezean

Urtegia edukieraren %22,65an dago; Urtegiaren errekatik urak ekartzeko obrak martxan daude

**Eneritz Maiz** Baliarrain

Udaz geroztik Ibiur urtegia baxu dago. Lehor doa udazkena, eta euri gutxi ari da egiten. Atzo euria egin bazuen ere, euri tanta horiek ez dira ezei Ibiur bezalako urtegia betetzeko. Tolosaldeko 52.105 biztanleri iristen zaio bertako ura, eta gaur egun, bere edukieraren %22,65an dago.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK, Gipuzkoako Urak kontsurtzioko Josetxo Saizarrekin hitz egin du Ibiurko urtegiaren gaur egungo egoeraz. «Bi urte daratza martxan, eta oraindik ez da bete. Kezkatzeko adina dela esango nuke. Bilakaera juxtua darama, eta gaurko egoera ez da batere eroso». Era berean, oraindik datu historiko gutxi dauzka Gipuzkoako Urak kontsurtzioak Ibiur urtegiaren inguruan, baina, «aurrekalkuluen arabera eta azken hilabeteko egoera mantenduko balitz, hiru bat hilabetetarako ura dago urtegiaren», azaldu du Saizarrek. Urte gutxi bizi du oraindik Ibiur urtegiak; «egia da bi urte gutxi direla, baina datu zehatzak horiek dira».

Bigarren urtez, urtea lehor doala azpimarratu du, eta gainera euri gutxi egin du. Honen ondorio garbia, urtegiaren gero eta ur gutxiago dagoela da. Dagoeneko,



2010eko ekainaren 10ean ateratako argazkia da. E. MAIZ

«Urtegiaren errekatik ura ekartzeko obrak martxan daude, eta aurten bertan bukatu nahi ditugu. Era berean, emari ekologiko bat ere mantentzen ari gara», adierazi du.

### Urtebetez jarraipena egiten

Egoerari buelta emateko, duela urtebete hasi ziren gaur egungo egoera aurreikusien, baina «ezer gauzatu ahal izateko, egungo egoera ekonomikoak ez du batere laguntzen» argitzen du.

Egunero-egunero egiten diote urtegiari jarraipena eta ur sarreak, kontsumoak eta kalitatea kontrolatzen dituzte.

Urtebetez geroztik, «gain-gaienez gaude, bai kaptazio eta neurri sendoak hartu beharko liratekeela uste dut», azpimarra-

aprobetxatzen ere. Neurri horiek esker, egun arrunteko eskariaren %25a aurreratzen ari gara», azaldu du Josetxo Saizarrek.

Egoerak oso okerrera joko balu, «gaitz handiarentzat erremedio handia» esaten dena aplikatu beharko genuke, eta ur mozketak edo ez hain kalitate oneko urak aprobetxatzera jo beharko genuke», gaineratu du.

### Arriaran eta Lareo urtegiak

Goierri eskualdean daude Lareo eta Arriaran urtegiak. Ibiurretik gertu, baina datu ezberdinak dituzte. Egia da, haiek urteak dararatzatela martxan. «Beste bai-lararako egoerarekin parekatzen, nire iritziz, eta epe motz batean, neurri sendoak hartu beharko liratekeela uste dut», azpimarra-

tu du.

Hornidura aldetik, «Ibiur eta Arriaran urtegiaren arteko lotura, bata bestearen lagungarri bezala, beharrezkotzat joko nituzke», dio Gipuzkoako Urak kontsurtzio kideak.

Baliabideei dagokionean, berriaz, Lareoko urtegi inguruan euri asko egiten duela dio, eta Amundarain ibaiak ur emari handia duela azpimarratu du. Bien arteko konpromiso batek lehorte eta eskasi garaiak bermatu beharko litzukeelakoan dago. «Nire ustez, Lareok dituen aukerak gehiago aprobetxatu eta etekin gehiago atera beharko genituzke».

Ibiurko urtegiaren ibilbidea, Lareoko urtegiarekin alderatzen badugu, «nahiko kaskarra» delakoan dago. «Bi urte besterik ez dituzte, eta biak jarraian nahiko lehorrak tokatu zaizkio», gaineratu du. Ataungo Lareoko urtegia, gutxi gorabehera, Ibiurretik hamar bat kilometrotara dagoela gogoratzen du. Lareon botatako urarekin alderatuz gero, «euri kopuru erdia bota du Ibiurren», argitu du.

Bi garen gizarte ereduaren, askotan, ez da behar beste balortua izan iturria ireki, eta ura ateratzea. Lehorte eta kalitate txarreko ura izan duten lekuetan, gehiago baloratzen dute ura izateko.

Kontsumo jasangarria dela eta, gizartea gero eta kontzientziatua dago. Hala ere, gurean, guztion esku dago eta egongo da, uraren erabilera egokia eta zuzena egitea. Honelako garaian, oraindik egiago da.

## Loatzo Musika Eskolak herrietan batzarrak deitu ditu

Musika eskolako lehen batzarrak bihar izango dira; Alegian 18:00etan eta Altzon 19:30ean elkartzeko dira

**E. Maiz**

Loatzo Musika Eskolak ikasturte berria hasi du Alegia, Altzo, Anoeta, Aduna, Ibarra, Zizurkil eta Villabonako herrietan batzarrak deitu ditu.

Bihar, ostirala, 18:00etan Alegiako Kultur Etxean izango da. Eta egun berean, 19:30ean Altzoko udaletxean egingo dute batzarrak. Hilaren 24ean, astelehenean, Zizurkilen egingo dute, 19:00etan, eta Atxulondo Kultur Etxean elkartzeko dira. Hilaren 27an, ostegunean, 18:00etan, Anoetako udaletxean izango da, eta 19:30ean Villabonako musika eskolako areto nagusian bilduko dira.

Hilaren 28an, ostiralean, 17:30ean Irurako Kultur gunean eta 19:00etan Ibarako kultur etxean egingo dituzte batzarrak. Azaroaren 7an, ostegunean, Adunaren txanda izango da. 19:30ean udaletxean izango da.

## → Laburrak

### Bakarrizketa Gaua egingo dute Gaztetxean, bihar

**IBARRA** › Ibarako Gazte Asanbladak antolatuta, Bakarrizketa Gaua izango da bihar, hilak 21, Ibarako Gaztetxean. Ione Gorostaru eta Olatz Etxeberria berastegiarekin batera, Barry Barrez eta Garbiñe Astiazaran izango dira taula gainera igo eta bakarrizketa saioak eskaniatu dituzten lau artistak. 22:30ean hasiko da emanaldia, eta doan izango da.

### Kultur eta Kirol Astea antolatzeko bilera

**ANOETA** › Urtero egiten duten Kultur eta Kirol Astea antolatzen ari da dagoeneko Anoeta-ko Udala. Aurten azaroaren 12tik 19ra izango da. Hori prestatzeko, beste behin, herriartean parte hartzea nahi dute. Astea antolatzeko bilera hilaren 26an, asteazkenean, 18:30ean egingo da udaletxean. Herriko talde guztiak eta herriartarri bertan parte hartzera joateko deia luzatzen diete.



Ibarratik Gaztelura egin zuten mendi irteera apirillean. Zikiro jatea egin zuten hura amaitzean. ASIERIMAZ

## Zazpi lurraldeak igaroko ditu Nafarroan hasiko den bidaiak

Haitzetan Raju taldeak laugarrenez antolatu du zazpi irteeraz osaturiko ekimena; lehena, igandean Nafarroara

**Iñigo Terradillos** Ibarra

Haitzetan Raju taldeak Ibarrako Bai Euskal Herriari ekimenaren laguntzarekin, eskalada irteera antolatu du igande honetarako, hilaren 23rako. Nafarroako San Faustora joango dira, eta bertan egun pasa polita egingo dute. Zazpi lurraldeetan burutuko dituzten zazpi irteeretan lehena izango da.

*Pikutxis* deituriko sektorean egingo dute eskalada, Lizarratik gertu. Mendi taldeetik diotenez, hastapen maila izango du eskaladak, beraz, gaztetxoetatik hasi eta helduetara bitarteko pertsonak har dezakete parte. Horregatik, nahi duen oro animatzen dute parte hartzera: «Beldurrak eta bertigoak alboratu, eta animatu hatzaparrak arroketa sartzera, putreak gure gainean dabiltzan bitartean». Gainera, Ibarrakoak

ez ezik beste herritar guztiei zabalik dago irteera.

Materialari dagokionez, antolatzaileek gehiena emango dutela azaldu dute, baina parte hartzaileei arnesa eta katuak behintzat emateko eskatzen diete, eta «soka eta expresak norberak emanez gero hobe».

**Egun pasa edo asteburu pasa** Bertara joateko, igandean 08:30ean geratu dira Ibarrako plazan, eta bazkaria, norbere kontura izango da. Parte hartzaileek ondorengo telefono zenbakietan eman beharko dute izena: 688 65 21 76 (Minde) edota 636 26 35 44 (Oihana).

Bezperetatik lo egitera joateko aukera ere badago, gainera. Eskalatuko duten lekuraino iristeko ondorengo pausoak jarraitu behar dira: Altsasutik barrena Iruñarako bidea hartu autobian; Arbizu parean Lizarragara sartu eskuinera eta behin portua igota, goitik behera jaitsi; Abarzuzako herria bukatzean eskuinera hartu (ez dago seinalerik) belaze bartzuen arteko errepidetik Erauleira iristeko. Bertako frontoian apartakuta lo egin daiteke. Iba-

rratik ordubete eta 10 minutura dago gutxi gorabehera.

### «Ez dira mendi irteera soilak»

Eskalada irteeraz gain, beste hainbat ere aurrekusi dituzte ikasturte honetarako, hileko bat, hain zuzen. Hala, zazpi ibilalditan zazpi lurraldeetatik igaroko dira: azaroan Araba bizikletaz egin nahi dute; urtarrilean, Zuberoara joango dira; otsailean, Bizkaira; martxoan Gipuzkoan barrena ariko dira; apirillean, Lapurdi bisitatuko dute; eta maiatzean Behe Nafarroan izango dira.

Laugarren urtez abiarazi dute «mendi irteera soilak antolatze-tik haratago» doan ekimena. Antolatzaileek diotenez, «mendia eta inguruan ditugun lurraldeak ezaugarria, lurraldetasuna sustatzea, jendarekin hartu-emana sortzea edota kultura desberdinak ezagutzeko» dute helburu. Hainbat irteera Lizarra eta Algortako mendi taldeekin batera antolatu dituzte, euren arteko harremanaren seinale. Urtero bezala, lelo ere izango dutebadute. Aurtengoan *Askatasun bidean* mezu oinarri hartuta emango dituzte pausoak.

**Georgina Hassan** • Abeslaria

## «Oso berezia da nire aitona jaio zen herrian abestea»

**I. Terradillos** Leitza

Alke kultur taldeak antolatuta, igande honetan Georgina Hassan Caballero (Buenos Aires, 1977) abeslari argentinarraren kontzertuaz gozatzeko aukera izango da. Leitza jatordidun musikariak bere bi diskotako abestiak eta euskarazko hainbat kanta aurkeztuko ditu zineman, 19:00etatik aurrera.

### Euskaldun jatorriko argentinarrak zara.

Bai. Nire aitaren aita, nire aitona, leitzaarra zen. 16 urte zituela joan zen Argentinara. 2002an, Argentinan krisi handian murgildurik zela, Euskal Herrira bidaiatu nuen, eta aitonen etxea izandako ezagutzeko aukera izan nuen. Niretzat amets handi bat zen nire aitonen lurraldea ezagutzeko. Bidaia hura beste hainbat bidaiaren hasiera izan zen, gerora askotan itzuli bainaiz Nafarroara. Izan ere, familia dut han, eta erlazioa mantentzen saiatzen naiz.

### Gertu sentitzen dituzu, beraz, zure sustraia.

Garrantzia berezia dute niretzat nire sustraiek. Horren adierazle, nire azken diskoan euskarazko zati bat duen abesti bat sartu dala. Abesti hori nire lehendabiziko bidaia hartan oinarrituta dago.

### Munduko melodietan bidaia egitera gonbidatzen duen ahotsa omen duzu.

Bidaiek asko elikatu duten bizitza izan dut. Asko gustatzen zait bidaiatzea eta beste kulturak ezagutzeko. Era berean, lekuetako musika asko interesatzen zait. Ni Argentinako musika folklorikoa lantzen hasi nintzen, eta gero beste musikak ezagutzeari ekin nion. Horrela, konposatzen dudanean beste lurraldeetako musike-



HITZA

kin nahasturikoa izaten da emaitza. Oinarria Latinoamerikako musika da, baina munduko musikako zertzeladak ditu.

### Nolakoa izango da igandeko kontzertua?

Kontzertu akustikoa izango da, bi diskotako abestiek eta berriekin. Euskarazko zati bat duen nire aitonari eskainitako abestia ere kantatuko dut, eta hori plazerra izango da niretzat. Kepa Junkeraren disko batean abestu nuen euskarazko abestia ere kantatuko dut, eta hirugarren bat ere izango da. Azken hauek Iñigo Aspizkordeoi-jotzailearen eta Oscar Estanga abeslariaren laguntzarekin kantatuko ditut. Kontzertu intimoa izango da, sustraian ukitua agerikoa den emanaldia. Niretzat oso berezia da nire aitona jaio zen herrian abestea. Bertaraten denak Latinoamerikako eta munduko hainbat txokotako sonoritatea duen musika entzun ahalko du.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95



|             |         |
|-------------|---------|
| GOIZA       | OSKARRI |
| ARRATSALDEA | OSKARRI |
| BEROENA     | 16°     |
| HOTZENA     | 10°     |

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info.  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoetaledea:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzalde:** 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia



**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Agenda

### DEIALDIK

- **Asteasu.** Kultur taldearen lehen bilera egingo dute gaur, 20:00etan kultur etxean. Par-taidetza kultzatu asmo egingo dute bilera hau, eta datozen as-teetan beste batzuk ere izango direla esan du udalak.
- **Alegia.** Gaur 19:30ean Tolo-saldea Osasun Publikoaren Alde plataformaren hitzaldia izango da.
- **Ikaztegieta.** Gaur 19:30ean TOParen hitzaldia izango da udaletxeko erabilera anitzeko gelan.
- **Abaltzisketa.** Elikadura ma-krobiotikoari buruzko hitzaldia gaur, 20:00etan kultur etxean. 3 euro ordaindu behar da eta Je-xux Larretxeak eskainiko du.
- **Tolosa.** Kasinoko Mikologia Jardunaldien barruan gaur, 20:00etan, Pedro Arrillaga Aranzadi elkarteko Mikologia saileko zuzendariaren hitzaldia ldiaketz jauregian.
- **Leitza.** Mikologia diaren barruan gaur eta bihar, herrita-rrek mendian jasotako perretxi-koak bilduko dituzte udaletxeko karrepean, 19:00etatik 20:00etara.

## Farmaziak

### GAUR

- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria kalea, 46. 943 67 32 74.
- **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

- **Tolosa.** Berdintasunaren Al-deko II. Astearren barruan gaur, *Kairoko emakumeak* filma es-kainiko dute Leidorren 19:00etan eta 21:45ean.
- **Tolosaldea.** Larunbatean Bil-bon *Euskal Herriak konponbi-dea nahi du* lelopean antolatu den manifestaziora joateko au-tobusak antolatu dituzte es-kualdean. Tolosan 15:30ean San Frantziskotik aterako da eta Raku, Xirimiri eta Denak ta-bernetan eman daiteke izena. Asteasun aldiz, 15:15ean irten-go da autobusa eta herriko taber-netan eman daiteke izena edo 615 70 87 32 telefono zenbakira deituta. Ibarren 15:00etan ir-ten-go da autobusa kultur etxe-paretik eta Zubiaurre, Atari, Su-begi eta Danon Txokoa taber-

netan eman daiteke izena. Ale-gialdean ere antolatu dute au-tobusa; 15:00etan irten-go da Amezketatik eta 15:30ean Ale-giatik. Ohiko tokietan eman daiteke izena.

- **Tolosa.** Hilaren 29ko kantu jira eta gero bazkaria egingo dute laguntzera etorriko diren Legaz-piko Alaitasuna errondailako musikariekien batera. Bazkaria Oargin izango da 14:30ean, eta babarrun jatea gingo dute 17 eu-rorren truke. Txartelak Xirimiri txokolategian erosi daitezke. Txartelak erosteko azken eguna hilaren 24a izango da.

### ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Box.a arte elkarteak eta GKO galeriakoe antolatu-

tako *Makina-Tu* erakusketa Aranburu jauregian azaroaren 5a arte.

- **Tolosa.** Arketal konpainia frantsesaren 150 lan biltzen di-tuen erakusketa ikusi daiteke Topic zentroan otsailaren 12a arte.
- **Tolosa.** Gaingitzen elkartearen Sentsibilizazio Astearren ba-rruan, Aranburu jauregian pe-tsona gorrek egin dituzten lanak ikusi daitezke. Era berean, San Frantzisko pasealekuan jarritako egurrezko paneletan eta kul-tur etxetik zintzilik dauden oiha-letan pertsona gorrek dituzten trabak ikusi daitezke.
- **Alegia.** Garbiñe Balerdiren margolanak ikusi daitezke hila-betea bukatu arte jubilatuen ta-bernan.

## Agurrak



...lazan bakoitza bikoizten denean, gorriak garen egun ilunetan begiratzen, begietara begiratzen garenean, ezinezkoa dena ulertzen dugu begietara begiratzen garenean, erritmo bakarrak agintzen digu... Muxu eta besarkada goxo-goxoak Maite!

## Programazioa

### 28 KANALA

- **08:30.** EH Dantza Txapelketa.
- **09:00.** Amaigabeko istorioa.
- **09:30.** Tolosaldean Gaur.
- **10:00.** Walker.
- **10:30.** Ikusmira.
- **11:00.** Kotxe klasikoak.
- **11:30.** Tolosaldean Gaur.
- **12:00.** Halterofilia.
- **12:30.** Berbaz.
- **13:00.** Foorfur.
- **13:30.** Tolosaldean Gaur.
- **14:00.** Walker.
- **14:30.** Ikusmira.
- **15:00.** Kotxe klasikoak.
- **15:30.** Tolosaldean Gaur.
- **16:00.** Halterofilia.
- **16:30.** Berbaz.
- **17:00.** Foorfur.
- **17:30.** Tolosaldean Gaur.
- **18:00.** Kafe t'erdi.
- **18:30.** Gipuzkoako Kultura.
- **19:00.** Bizitegia.
- **19:30.** Tolosaldean Gaur.
- **20:00.** Estetika.

(\*16:30etik 20:00etarako blo-kea lau orduko errepikatuko dute)

### TXOLARRE IRRATIA (107,6)

- **11:00.** Tolosaldeko Ahotsa albistegia.
- **12:00.** Tolosaldeko Ahotsa magazina.
- **13:00.** Lehiaketa.
- **13:30.** Info 7ko albistegia.
- **14:00.** Tolosaldeko Ahotsa albistegia.
- **16:00.** Irauli.
- **16:30.** Gaztesarea.
- **17:00.** Kabitik plazara: Gpuntu.
- **18:00.** Tolosaldeko Ahotsa magazina.
- **19:00.** Tolosaldeko Ahotsa albistegia.
- **20:00.** Info 7ko albistegia.
- **20:30.** Aittitta.
- **21:30.** Arrakala.

## PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

